Forlaneko (Muskiz) Kontseilu Errektoreak, 2020ko maiatzaren 11n egindako ezohiko saioan, aho batez onartu zituen Muskizko autonomo, mikroenpresa eta enpresa txikietarako laguntzen udal-programaren oinarri arautzaileak, COVID-19ak eragindako krisi ekonomikoaren inpaktua txikiagotze aldera. Hain zuzen, horren berri ematen da iragarki honen bitartez:

Lehenengoa. - Xedea.

Oinarri hauen xedea da Muskizko Udalak, bere Forlan erakunde autonomoaren bitartez, Muskizko autonomoei, hamar langiletik beherako mikroenpresei eta berrogeita hamar langiletik beherako enpresa txikiei laguntza ekonomikoak zuzenean emateko prozedura arautzea, baldin eta horien jarduerak eten egin badira edo larriki kaltetu badira COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren kudeaketarako alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz, jarduera horiek mantentzen laguntzeko.

Laguntza horien helburua da jarduera eten edo jardueraren funtzionamendua murriztu egin behar izan duten pertsonen eta negozioen laguntzea jarduerari berrekin eta eutsi ahal izan diezaioten osasun-krisiagatik hartutako neurriak amaitu ondoren, era horretara jardueran eragiten duten aldizkako kostu finko jakin batzuk arinduz.

Laguntza horiek ohiz kanpokoak dira eta alarma-egoera honen ondoriozko inguruabarretara mugatuta daude.

Bigarrena. - Onuradunak eta betebeharrak.

1.- Laguntza hau eska dezakete betebeharrak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek, ezarritako laguntza-moten arabera:

1. MOTA:

Txikizkako, ostalaritzako eta antzeko merkataritza-jarduera Muskizen garatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak, baldin eta garatzen duten jarduerari martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duenak) ezarritako nahitaezko itxierak eragin badio edo, hala badagokio, alarma-egoera deklaratzearen ondorioz diru-sarrerak murriztea konpentsatzeko (*laguntza eskatu aurreko hilean fakturazioa % 75 murriztu bazaie aurreko sei hilekoko fakturazioaren batezbestekoarekin alderatuta*), baldin eta honako betebeharrak betetzen badituzte:

a) Autonomoa, mikroenpresa (hamar langileri baino gutxiagori ematen die lana) edo enpresa txikia (50 langileri baino gutxiagori ematen die lana) izatea.

b) Aitortua izatea martxoaren 17ko 8/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 17. artikuluan araututako ohiz kanpoko laguntza, COVID-19aren ondoriozko osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioak eragindako pertsonentzat jarduera eten izanagatik.

- c) Gizarte Segurantzaren erregimenean edo dagokion mutualitate profesionalean eta Ogasunean alta emanda egotea alarma-egoera deklaraturako unean, hots, 2020ko martxoaren 14an.
- d) Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea, txikizkako merkataritzan, ostalaritzan eta antzekoetan sartuta dagoela eta jardueraren helbidea Muskizen duela ziurtatzeko. Muskizko Udalak ofizioz egiaztatuko du zein zen establezimenduaren egoera ekonomia-jardueren gaineko zergan alarma-egoeraren deklarazioaren unean, hots, 2020ko martxoaren 14an.
- e) Muskizen izatea lokala jendearentzat irekita.
- f) Foru Ogasunarekiko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko eta Muskizko Udalarekiko betebeharrak egunean izatea, eta dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak beteta izatea. Betebehar hori eskaera aurkezten den egunetik dirulaguntza ordaintzen den egunera arte bete beharko da, hala badagokio.
- g) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatutako desgaitasun-egoerarako bakar batean ere.
- h) Jarduerari 2020ko martxoaren 14a baino lehen ekin izana eta jardueran baja eman ez izana. Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egon beharko du, gutxienez, establezimendua ireki ondorengo sei hiletan, eragiten dien alarma-egoeraren neurriak amaitu ondoren.

2. MOTA:

Titularraren zerga-helbidea eta errolda Muskizen duten pertsona fisikoak edo juridikoak, baldin eta garatzen duten jarduerari martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duenak) ezarritako nahitaezko itxierak eragin badio edo, hala badagokio, alarma-egoera deklaratzearen ondorioz diru-sarrerak murriztea konpentsatzeko (*laguntza eskatu aurreko hilean fakturazioa % 75 murriztu bazaie aurreko sei hilekoko fakturazioaren batezbestekoarekin alderatuta*), baldin eta honako betebehar hauek betetzen badituzte:

- a) Autonomoa, mikroenpresa (hamar langileri baino gutxiagori ematen die lana) edo enpresa txikia (50 langileri baino gutxiagori ematen die lana) izatea.
- b) Aitortua izatea martxoaren 17ko 8/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 17. artikuluan araututako ohiz kanpoko laguntza, COVID-19aren ondoriozko osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioak eragindako pertsonentzat jardueran eten izanagatik.
- c) Gizarte Segurantzaren erregimenean edo dagokion mutualitate profesionalean eta Ogasunean alta emanda egotea alarma-egoera deklaraturako unean, hots, 2020ko martxoaren 14an.
- d) Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga-helbidea Muskizen izatea. Muskizko Udalak ofizioz egiaztatuko du zein zen jardueraren titularraren egoera ekonomia-jardueren gaineko zergan alarma-egoeraren deklarazioaren unean, hots, 2020ko martxoaren 14an.
- e) Jardueraren titularrak Muskizko biztanleen udal-erroldan agertu beharko da 2020ko martxoaren 14tik gutxienez.
- f) Foru Ogasunarekiko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko eta Muskizko Udalarekiko betebeharrak egunean izatea, eta dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak

beteta izatea. Betebehar hori eskaera aurkezten den egunetik dirulaguntza ordaintzen den egunera arte bete beharko da, hala badagokio.

g) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatutako desgaitasun-egoeretako bakar batean ere.

h) Jarduerari 2020ko martxoaren 14a baino lehen ekin izana eta jardueran baja eman ez izana. Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egon beharko du, eragiten dien alarma-egoeraren neurriak amaitu eta ondorengo sei hiletan gutxienez.

3. MOTA:

Titularraren zerga-helbidea eta errolda Muskizen duten edo jendearentzat irekitako establezimenduak Muskizen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, alarma-egoera deklaratzaren ondoriozko diru-sarrerak murriztea konpentsatzeko (laguntzok BAO on argitaratu aurreko hilean fakturazioa, gutxienez, % 50 murriztu bazaie 2019 ekitaldiko hileko fakturazioaren batezbestekoarekin alderatuta. Pertsona fisikoa edo juridikoa ez badago alta emanda diru-sarrerak murriztu izana egiaztatzeko eskatzen den datatik, hau da, 2019ko urtarrilaren 1az geroztik, balorazioa jarduera-aldia kontuan hartuta gauzatuko da), baldin eta betebehar hauek betetzen badituzte:

a) Autonomoa, mikroenpresa (hamar langileri baino gutxiagori ematen die lana) edo enpresa txikia (50 langileri baino gutxiagori ematen die lana) izatea.

b) Jarduera mantentzen bada, laguntzok BAO on argitaratu aurreko hilean fakturazioa, gutxienez, % 50 murriztu izana 2019 ekitaldiko hileko fakturazioaren batezbestekoarekin alderatuta. Pertsona fisikoa edo juridikoa ez badago alta emanda diru-sarrerak murriztu izana egiaztatzeko eskatzen den datatik, hau da, 2019ko urtarrilaren 1az geroztik, balorazioa jarduera-aldia kontuan hartuta gauzatuko da.

c) Gizarte Segurantzaren erregimenean edo dagokion mutualitate profesionalean eta Ogasunean alta emanda egotea alarma-egoera deklaratzeko unean, hots, 2020ko martxoaren 14an.

d) Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga-helbidea edo jendearentzat irekitako establezimendua Muskizen izatea. Muskizko Udalak ofizioz egiaztatuko du zein zen jardueraren titularraren egoera ekonomia-jardueren gaineko zergan alarma-egoeraren deklarazioaren unean, hots, 2020ko martxoaren 14an.

e) Muskizen zerga-helbidea duen jardueraren titularra edo pertsona fisikoa Muskizko biztanleen udal-errolan agertu beharko da 2020ko martxoaren 14tik gutxienez.

f) Foru Ogasunarekiko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko eta Muskizko Udalarekiko betebeharrak egunero izatea, eta dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharrak beteta izatea. Betebehar hori eskaera aurkezten den egunetik dirulaguntza ordaintzen den egunera arte bete beharko da, hala badagokio.

g) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatutako desgaitasun-egoeretako bakar batean ere.

h) Jarduerari 2020ko martxoaren 14a baino lehen ekin izana eta jardueran baja eman ez izana. Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egon beharko du, eragiten dien alarma-egoeraren neurriak amaitu eta ondorengo sei hiletan gutxienez.

4. MOTA:

Titularraren errolda Muskizen duten eta zerga-helbidea EAEko edozein udalerritan edo autonomia-erkidego mugakide batean duten pertsona fisikoak, jendearentzat lokala irekita dutenak, alarma-egoera deklaratzearen ondorioz jarduera eten egin behar izan dutenak edo, hala badagokio, diru-sarrerak murriztea konpentsatzeko (laguntza eskatu aurreko hilean fakturazioa % 75 murriztu bazaie aurreko sei hilekoko fakturazioaren batezbestekoarekin alderatuta), baldin eta honako betebeharrak betetzen badituzte:

- a) Pertsona fisikoa izatea autonomoen erregimenean, sozietate zibilak eta ondasun-erkidegoak barne.
- b) Aitortua izatea martxoaren 17ko 8/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 17. artikuluan araututako ohiz kanpoko laguntza, COVID-19aren ondoriozko osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioak eragindako pertsonentzat jarduera eten izanagatik.
- c) Gizarte Segurantzaren erregimenean edo dagokion mutualitate profesionalen eta Ogasunean alta emanda egotea alarma-egoera deklaratutako unean, hots, 2020ko martxoaren 14an.
- d) Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea, zerga-helbidea EAEko edozein udalerritan edo autonomia-erkidego mugakide batean izatea, eta jendearentzat lokala irekita izatea alarma-egoera deklaratutako unean, hots, 2020ko martxoaren 14an.
- e) Muskizko biztanleen udal-erroldan agertzea 2020ko martxoaren 14tik gutxienez.
- f) Foru Ogasunarekiko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko eta Muskizko Udalarekiko betebeharrak egunean izatea, eta dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharrak beteta izatea. Betebeharrak hori eskaera aurkeztu den egunetik dirulaguntza ordaintzen den egunera arte bete beharko da, hala badagokio.
- g) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatutako desgaitasun-egoerarako bakar batean ere.
- h) Jarduerari 2020ko martxoaren 14a baino lehen ekin izana eta jardueran baja eman ez izana. Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egon beharko du, eragiten dien alarma-egoeraren neurriak amaitu eta ondorengo sei hiletan gutxienez.

Dirulaguntza bakarra emango da txikizkako merkataritza, ostalaritza, jatetxe, ostatu eta beste jarduera-zerbitzu batzuetako establezimendu bakoitzeko, horietan jarduera garatzen duten eta langile autonomoen erregimen berezian edo dagokion mutualitate profesionalen izena emanda dauden pertsonen kopurua gorabehera. Establezimendu horietan gauzatutako ekonomia-jardueren titulartasuna pertsona fisiko batek baino gehiagok badute, dirulaguntzaren zenbatekoa titularrek aurkeztutako eskaerei proportzionalki banatuko zaie, eta egiaztatu egin beharko dute eskaera bakoitzak bete egiten dituela ezarritako betebeharrak. Mota bakoitzeko dirulaguntzaren zenbateko osoak ezingo du gainditu ezarritako gehieneko muga.

Ixtera behartutako establezimenduetako batean gauzatutako ekonomia-jardueran pertsona autonomo batek baino gehiagok lan eginez gero, dirulaguntza bakarra izango da establezimendu horretarako. Ezetsi egingo dira lan-jarduera establezimendu berean gauzatzen duten eta langile autonomoen erregimen berezira edo dagokion mutualitate profesionalera atxikitako pertsona fisikoek aurkeztutako banakako dirulaguntza-eskaerak.

Autonomoen kasuan, jarduera profesional indibidualizatuak garatzen dituztenek jaso ahal izango dituzte laguntzak, eta zerbitzua eskaintzen duen pertsona bakoitzak ezingo du laguntza bat baino gehiago jaso.

Laguntza bakarra emango da pertsona fisiko edo juridiko bakoitzeko, eta pertsona fisiko berak ezingo du jaso laguntzarik bi enpresa desberdinengatik.

2.- Dirulaguntza hauetatik kanpo geratzen dira administrazio publikoak, horien erakunde autonomoak, enpresa publikoak eta beste erakunde publiko batzuk, baita elkarteak, fundazioak eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak ere.

Hirugarrena. - Dirulaguntzaren zenbatekoa:

1. mota: 1.200 € arteko oinarrizko zenbatekoa ezarriko da.

2. mota: 1.000 € arteko oinarrizko zenbatekoa ezarriko da.

3. mota: 700 € arteko oinarrizko zenbatekoa ezarriko da.

4. mota: 500 € arteko oinarrizko zenbatekoa ezarriko da.

1. motarako adierazitako zenbatekoei eta 3. motako jendearentzat irekitako establezimenduei % 25eko osagarria gehituko zaie baldin eta jardueraren titularraren zerga-helbidea Muskizen badago, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erroldaren arabera, eta Muskizko biztanleen udal-erroldan izena emanda badago 2020ko martxoaren 14tik gutxienez.

1., 2. eta 3. motetarako adierazitako zenbatekoei honako osagarri hauek gehitzeko aukera dago:

— 500 euroko osagarria, pertsona edo erakunde onuraduna jarduera garatzen duen negozio-lokalaren errentaria bada merkatu pribatuan, betiere lokal hori eskatzailearen etxebizitzaren parte ez bada edo beste enpresa batekin partekatzen ez bada, bigarren mailako odolkidetasun-harremanik edo afinitate-harremanik ez badago lokalaren alokatzailearekin, eta alokatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo kide ez bada eskatzailea.

— 400 euroko osagarria, pertsona edo enpresa onuraduna jarduera garatzen duen negozio-lokalaren gaineko hipoteka-mailegu baten titularra bada.

— Norbera Babesteko Ekipoen (NBE) gastuak eta osasun-prebentzioko eta -higieneko materiala ordaintzeko osagarria, justifikatzen duten zenbatekoan; gehienez ere, 600 euro.

— 150 euroko osagarria lanaldi osoko langile bakoitzeko (beste edozein autonomo, kooperatibako bazkide barne); diruz lagundu ahal izango dira gutxienez % 50eko lanaldi partzialak ere. Gehienez ere 1.500 euroko zenbatekoa ezarriko da 1 eta 10 langile arteko enpresetarako, eta 2.500 euroko zenbatekoa, berriz, 10 eta 49 langile arteko enpresetarako. Langileak edo autonomoak Muskizen erroldatuta badaude 2020ko martxoaren 14an, osagarria % 20 handituko da langile bakoitzeko, eta gehieneko zenbatekoa ere ehuneko berean handituko da.

Jarduera Muskizen garatzen duten enpresek edo autonomoek, eta garatzen duten jarduerari martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuan (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duenak) ezarritako nahitaezko itxierak eragin arren, ez badute Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientea (ABEEE) izapidetu edo ABEEEizapidetu arren egiaztatzen bada enpresak langileekin edo sindikatuekin adostu duela ABEEEaren soldata-osagarria oinarri arautzailearen % 100ekoa izatea eta ez soilik Estatuak ematen duen % 70ekoa, 200 euroko osagarria jasoko dute lanaldi osoko langile bakoitzeko, eta gutxienez % 50eko lanaldi partzialak hainbanatu egingo dira. Horretarako, konpromisoa hartu beharko dute lehenengo kasuan ez eskatzeko ABEEEak, EEEak edo kaleratzeak laguntza eman eta ondorengo hiru hiletan.

1., 2., 3. eta 4. motako dirulaguntzen onuradun diren pertsonak edo enpresek, alarma-egoera amaitu ondoren, alarma-egoeraren ondorioz kaleratutako langileak edo aldi baterako kontratua (ABEEEak izan ezik) amaitu zuten langileak kontratatzen badituzte, 500 euroko dirulaguntza izango dute gutxienez sei hileko kontratu bat egiteagatik, 800 eurokoa urtebetetik gorako kontratu bat egiteagatik eta 1.200 eurokoa lanaldi osoko kontratu mugagabe bat egiteagatik (gutxienez % 50eko lanaldi partzialak hainbanatu egingo dira). Kasu horietan, kontratatutako pertsonaren lan-bizitzari buruzko txosten eguneratua aurkeztu beharko da, egiaztatzeko kontratatutako pertsona langabezian zegoela eta enpresa berean aurretik beste kontratu batzuk izan zituela. Zenbateko berberak emango dira langabeen kontratazio berrietarako, betiere langileen kopuruaren gehikuntza garbia badakar, 2020ko martxoaren 14koarekin alderatuz gero.

Ohiz kanpoko zenbatekoa itxierak eragin ez dien eta jendearentzat irekita egon diren establezimenduetarako Muskizen txikizkako merkataritza-jarduera, ostalaritza-jarduera eta antzeko jarduerak garatzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek, establezimendua jendearentzat irekita dutenek, dirulaguntza bat eskatu ahal izango dute, NBE-en gastuak eta osasun-prebentzioko eta -higieneko materiala ordaintzeko, justifikatzen duten zenbatekora iritsi arte; nahiz eta jarduera horretan ez duen eraginik izan martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duenak, ezarritako establezimenduen nahitaezko itxierak. Gehienez ere 600 €-ko dirulaguntza izango da, baldin eta ez badute eskatu aurreko laguntza-motarik.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira 2020ko martxoaren 1etik alarma-egoera amaitu eta hurrengo hileko azken egunera arte izandako gastuak.

Ondore guztietarako, honako hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- Negozio-lokalen alokairua, betiere lokal hori eskatzailearen etxebizitzaren parte ez bada edo beste enpresa batekin partekatzen ez bada, bigarren mailako odolkidetasun-harremanik edo afinitate-harremanik ez badago lokalaren alokatzailearekin, eta alokatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo kide ez bada eskatzailea; eta hipoteka-maileguen kuotak.
- Gastu sozialak edo langileen gastuak, NBE-en eta osasun-prebentzioko eta -higieneko materialen gastuak, aholkularitza- eta kontsultoretza-gastuak, kontsumo-gastuak (elektrizitatea, gasa, telefonoa, erregaia) eta jarduerarekin lotutako beste gastu batzuk.

Inola ere ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko berreskura edo konpentsa daitezkeen zeharkako zergak, ekoizpen-prozesura gehitzen diren ondasun eta eskubideak, ez eta onuradunaren jardueraren barruan saltzen edo kudeatzen diren ondasunak eta eskubideak ere.

Laugarrena. - *Finantzaketa.*

Laguntzen deialdi honetarako aurreikusitako kreditua guztira 800.000 (zortziehun mila) eurokoa da.

Bosgarrena. - *Eskaerak aurkezteko epea eta modua.*

Eskaerak hogeita hamar eguneko epean aurkeztu ahal izango dira, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Oro har, pertsona fisiko edo juridiko onuradunek bete egin beharko dituzte Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2002 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak xedatutako baldintzak.

Eskaerak posta elektronikoz aurkeztu beharko dira, helbide honetan: covid19@forlan.org.

Eskaera pertsona fisiko batek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean aurkezten badu, eskaerarekin batera, jarduten duen ordezkaritza egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

Izapidea egiteko laguntza behar izanez gero, eskatzailea Forlaneko Arreta Zerbitzuarekin jar daiteke harremanetan 94 670 6016 telefono-zenbakira deituta, 09:00etatik 14:00etara.

Ez dira onartuko epez kanpo eta derrigor erabili behar diren eskaera-inprimakiak erabili gabe aurkeztutako eskaerak.

Seigarrena. - *Beharrezko dokumentazioa.*

1. Dirulaguntza-eskaerarekin (Forlanen webgunean eskuragarri dagoen I. eredua) batera, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Pertsona fisikoak edo ondasun-erkidegoetako edo nortasun juridikorik gabeko sozietate zibiletako bazkideak badira:

1. NAN-Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia (pertsona fisikoak) eta eratze-kontratua eta IFK (ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak).
2. EJZ-Ekonomia jardueren gaineko zergaren alten eta bajen ziurtagiria, eskaeraren egunean.
3. Kontratututako langileak izanez gero, ALT-Altan dauden langileen txostena (eskaera egin den unetik ahalik eta datarik gertuenekoa; laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den data baino geroagokoa izan behar du).
4. Autonomoaren lan-bizitza, 2020ko martxoaren 13tik ahalik eta datarik gertuenera bitartekoa (laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den data baino geroagokoa izan behar du).
5. Ogasunaren ziurtagiri eguneratua, dirulaguntzaren eskatzaileak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

6. Gizarte Segurantzaren ziurtagiri eguneratua, eskatzaileak bere betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

7. Kudeaketa-organoaren ebazpena, jarduera eten egin behar izan dela adierazten duena.

b) Pertsona juridikoak badira:

1. IFZaren kopia edo, hala badagokio, pertsona juridikoaren IFKren Foru Ogasunaren ziurtagiria.

2. EJZ-Ekonomia jardueren gaineko zergaren alden eta bajeziurtagiria, eskaeraren egunean.

3. Eskatzailearen ordezkari-tza-ahalak.

4. Kontratututako langileak izanez gero, ALT-Altan dauden langileen txostena (eskaera egin den unetik ahalik eta datarik gertuenekoa; laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den data baino geroagokoa izan behar du). 5. Enpresan arduraldi eskusiboa duten bazkide autonomoen lan-bizitza, 2020ko martxoaren 13tik ahalik eta datarik gertuenera bitartekoa (laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den data baino geroagokoa izan behar du).

6. Ogasunaren ziurtagiri eguneratua, dirulaguntzaren eskatzaileak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

7. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, eskatzaileak bere betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

Kudeaketa-organoaren ebazpena, jarduera eten egin behar izan dela adierazten duena.

c) Aurreko bi kasuetarako –a) eta b)– osagarriak eskatuz gero, honako hauek aurkeztu beharko dira: alokairu-kontratua, hipoteka-maileguaren kontratua, aurrekontua, NBE-en proforma faktura edo faktura, eta enpresaren lan-bizitza laguntza aurkezten den egunean, zeinetan enpresako langileak ageriko diren. ABEEE-etako enpresen osagarrien kasuan, akordioaren justifikazioa aurkeztu beharko da. COVID dela-eta kaleratutako pertsonak kontratatzen badira eta berriz ere enpresan hasten badira, enpresaren kontratuak eta lan-bizitza eguneratua aurkeztu beharko dira, zeinetan aurreko lan-harremana jasoko den. Muskizeko langabeen kontratazio berrien kasuan, lan-kontratuak eta kontratatutako pertsonaren lan-bizitza eguneratua.

2— Zinpeko adierazpena, sinatua (Forlanen webgunean eskuragarri dagoen II. eredu): pertsona interesdunak edo pertsona edo erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, honako gai hauei buruzko berriazko adierazpena jasoko duena:

— Garatutako jarduerari martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duenak, ezarritako establezimenduen itxierak eragin dio, edo, hala badagokio, diru-sarrerak murriztu egin dira (laguntzok BAOn argitaratu aurreko hilean fakturazioa, gutxienez, % 50 murriztu bazaie 2019 ekitaldiko hileko fakturazioaren batezbestekoarekin alderatuta. Pertsona fisikoa edo juridikoa ez badago alta emanda diru-sarrerak murriztu izana egiaztatzeko eskatzen den datatik, hau da, 2019ko urtarrilaren 1az geroztik, balorazioa jarduera-aldia kontuan hartuta gauzatuko da).

— Eskatzaileak bete egiten ditu mikroenpresa edo enpresa txikia izateko baldintzak, bat etorritik Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Araudiko (EB) I. eranskinarekin.

Eskatzaileak bere gain hartzen du dirulaguntza aurreikusitako xedera bideratzeko konpromisoa.

— Eskatzailea ez dago sartuta onuradun izateko eta azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritako ordainketaren hartzaile izateko debekuetan, zehazki, lege horren 13. artikulua 2. eta 3. zenbakietan eta 34. artikulua 5. zenbakian ezarritako debekuetan.

Eskatzaileak konpromisoa hartzen du dirulaguntzen betebeharrak betetzeko. Horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan daude zehaztuta.

— Enpresa eskatzailea ez da jasotzen ari kontzeptu eta xede bererako edozein administraziok edo entitate publikok zein pribatuk emandako bestelako dirulaguntzarik, laguntzarik edo diru-sarrerarik. Edo enpresa eskatzaileari euroko laguntza bat eman zaio kontzeptu eta xede bererako, honako honek emanda: (*). Edo euroko laguntza bat eskatu da kontzeptu bererako eta xederako (*) eta ebazpenaren zain dago.

(*) Adierazi administrazioaren edo entitate publiko zein pribatuaren izena eta eskatutako edo emandako dirulaguntzaren izena.

— Eskatzaileak konpromisoa hartzen du azken hiru zerga-ekitaldietan edozein proiektugatik jaso ahal izan dituen *minimis* laguntzak deklaratzeko, honako hauek adierazita: zenbatekoa, erakundea, laguntza eman den eguna eta laguntzen araubidea, edo, hala badagokio, laguntzarik jaso ez izanaren adierazpena; eta konpromisoa hartzen duela eskabidea aurkeztu ondoren lortutakoak ahalik eta lasterren jakinarazteko.

— Eskatzaileak konpromisoa hartzen du xede bererako emandako dirulaguntzen berri emateko, eta konpromisoa hartzen du eskaera aurkeztu ondoren eta ebazpena eman aurretik jasotako laguntzen berri ahalik eta azkarren emateko.

— Ondasun-erkidegoa, sozietate zibila edo nortasun juridikorik gabeko beste erakunde ekonomiko bat izanez gero, ez da desegingo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte, lege horren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Zazpigarrena. - Ebazpena

Erakunde autonomoaren presidentea izango da oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen emakidari buruzko espedientea ebazteko eskumena duen udal-organoa, zuzeneko emakidaren bidez.

Prozeduraren ebazpena banaka jakinaraziko zaie pertsona edo erakunde interesdunei, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 41.1 artikuluan ezarritakoarekin.

Nolanahi ere, emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa bitan ordainduko da: lehenengo ordainketa, % 70, ebazpena ematen den unean; eta bigarren ordainketa, % 30, dirulaguntza jasotzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu ondoren.

Laguntza-lerro hori bateragarria izango da beste administrazio publiko batzuek abian jar ditzaketan laguntzekin, baldin eta kontzeptu eta xede bereratik ez bada eta COVID-19ak sortutako galera baino dirulaguntza handiagorik jasotzen ez bada. Hala badagokio, dirulaguntzei buruzko 38/2003 araudian aurreikusitako itzulera-prozedura jarriko da abian.

Justifikatutako gastua emandako zenbatekoa baino txikiagoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu egingo da justifikatutako gastuaren arabera.

Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, onuradunak adierazitako kontu korrontean, dirulaguntzaren xedea justifikatu ondoren.

Ebazpena emateko gehieneko epea hiru hilekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epea igaro eta berariazko ebazpenik ematen ez bada, dirulaguntzaren eskaera ezetsizat joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Ebazpenean, gutxienez, honako hauek jasoko dira: pertsona eta enpresa onuradunen zerrenda (NANak edo IFKak), zenbatekoak eta, halakorik gertatuz gero, eskaerak ezesteko arrazoi egokiak eta nahikoak.

Ematen den ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hileko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Nolanahi ere, nahi izanez gero eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari berari, hileko epean.

Zortzigarrena. - Dirulaguntzaren justifikazioa

Muskizko Udalak eskubidea izango du dirulaguntzaren onuradunak aurkeztutako zinpeko adierazpenean jakinarazitako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko. Horretarako, Muskizko Udalak dokumentazio osagarria eskatu ahal izango du prozeduraren edozein unetan. Laguntzaren eskaerak oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen ez baditu, edo eskaerarekin batera eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, interesdunei eskatuko zaie 7 egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko edo derrigorrezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaie hala egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, lege-testu bereko 21.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Onuradunek eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badute, prozeduran atzera egin dutela ulertuko da, eta, bidezkoa bada, jasotako dirulaguntza itzuli beharko dute.

Onuradunak dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu beharko du alarma-egoera amaitu eta 6 hileko epean, jarduerak altan jarraitzen duela egiaztatzen duen dokumentazio honen bidez:

- Errolda-egoeraren ziurtagiri eguneratua, honako hau adieraziko duena: jarduera ekonomikoa, alta-data, zerga-helbidea eta jarduera garatzeko lokala.
- Pertsona fisikoak edo administratzaileak Gizarte Segurantzako edo dagokion mutualitate profesionaleko dagokion araubidean alta eman izanaren ebazpena/ziurtagiria, justifikazioa aurkezten den egunean eguneratua.

— Jarduerak bere fakturazioan murrizketa izan badu laguntza horiek BAOn argitaratu aurreko hilarekin alderatuta, gutxienez % 50ekoa 2019 ekitaldian egindako fakturazioaren batezbestekoarekin alderatuta, murrizketa hori egiaztatu beharko du, honako hauen bidez: berau justifikatzen duen kontabilitate-informazioa, 2019 ekitalditik dirulaguntzaren eskaera aurkezten den egunera artekoa; egindako fakturen erregistro-liburua; diru-sarreraren eguneroko liburua; salmenten eta sarreraren erregistro-liburua; edo zuzenbideak onartzen duen beste edozein frogabide:

- Gastu guztien ordainketen fakturak eta banku-ziurtagiriak.
- Enpresaren lan-bizitza eguneratua, alarma-egoera amaitzen den hilaren azken egunaren ondorengoa, enpresako langileen zerrenda eta egoera jasotzen dituen.
- ABEEE-en osagarrien kasuan, langileei ordaindu izana adierazten duen banku-ziurtagiria.
- Kontrataziorako laguntzen kasuan, enpresaren lan-bizitza eguneratua, diruz lagundutako kontratua amaitu eta hurrengo hilekoa (dokumentazio hori 2020/12/31 baino geroago aurkeztu ahal izango da, hala dagokionean).

Bederatzigarrena. - Aplikatu beharreko araudia

Oinarri arautzaileetan xedatutakoak ez ezik, honako hauek ere arautuko dituzte laguntza horiek: Muskizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra eta, oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (aurrerantzean, DLO) eta hura garatzeko erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartua, aurrerantzean DLOE); 2020 ekitaldirako udal-aurrekontua betearazteko arauak; eta osagarri gisa, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta bere izaeragatik aplikatu behar den beste edozein arauko xedapen.

Dirulaguntza horien kudeaketa printzipio hauei lotuko zaie: publikotasuna, lehia, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza; bai eta helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia ere.

Dirulaguntzak bitarteko elektronikoen bidez izapidetuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko, aintzat hartuta egungo alarma-egoeraren deklarazioak mugatu egiten duela pertsonen zirkulazioa erabilera publikoko bide edo eremuetan.

Hau guztia jendaurrean jartzen da, orok jakin dezan.

Muskiz, 2020ko maiatzaren 27a.

Sin.: Borja Liaño Abarrategi. Alkatea.

